

8. zenbakia
2000ko apirila


URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

UK

Andoni Aizpuru

“Carpe diem egiten
ari naiz; unea topera
aprobetxatu, eta geroak esan
beza”

• nekane ardanza • asier hormaza • akabuko punte •



Lanetik etxera

Exposizio
luzeko argazki honek, berez
hitz egiten du.
Guztiak etxera bidean eta inor ez
Bilborantz. Urbe Kostako
Korredorea,
20:00.

ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ



Bizkaiko Foru
Aldundia
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta E.B.E. HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net /

Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru ERREDAKZIOA: Esti Ezkerra, Andoni Llosa, Konrado Mugerza

ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron INFOGRAFIA: Guillermo Almagia MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez KOLABORATZAILAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José

Ignacio Lobo, Xabier Buenetxea, Itsaso Arana, Aitor Elizegi, Algortako Bertsolari Eskola ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 463 92 63, 94 491 13 37) INPRIMATEGIA:

GESTINGRAF

Inportaziozko zerbezarik onenak

Terraza zabala



basarte'na

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Barrukoa Taberna

Telletxe 5



ALGORTA

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKE-



Sarrikobaso 15 48990

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

ez daude konforme

Algortako arraunlariak



Bizkaian hamasei arraun talde daude gaur egun; ezetz asmatu zeintzuk diren horien artean entrenatzeko pabilioirik ez duten bakarrak? Bai, ba, Getxoko talde biak, hau da, Raspas eta Algortako Arraun Taldea. Algortakoek euren haserrearen berri eman digute, izan ere, Kirol Portua egiteko zenean arraunerako eta belarako pabiloi bat egin behar ei zen bertan; azkenean ez da ezer egin. Lekurik

badago; borondaterik ordea, ez. Kirol Portuko Zuzendaritzarekin biltzen saiatu dira baina ez dituzte hartu ere egin. Udalaren subentzioa beti berbera eta oso eskasa izaten da eta horrela nekez egin dezake arraunak aurrera herrian. Arraunak garai eztiak ezagutu izan zituen Algortan, puntako trainerua ere izan zen Euskal Herrian. Gaur egun egoera bestelakoa da. Bilboko Portuarena den lokal estu eta zaharkitua erabiltzen dute algortarrek, ozta-ozta gorde dezakete bertan materiala. Aldagela bakarra daukate eta horregatik ere neskarik ez dago taldean. Entrenatzeko baldintza egokiak dituen pabilioi batek gazte jende gehiago erakarriko luke arraunera. Hori da taldekoeen ustea eta horixe eskatzen dute.

bertso papera

Mesedez ama

AITZOL DE CASTRO

Doinua: Jona Bixenta Olabe.

Alaba / Ama

I
Ama egin ditut gaur hamazortzi gauean beranduago beltzen utzi.
Lotsarik ez daukazu alaba gainera arriskutsua da gaba.
Gezurra dena gauean inoiz gertatzen dena da egunez gerta daitekeena.

II
Beraz ordua atzeratzeko baina nahi dut jakin zer egiteko.

Lagunekin trago batzuk hartu zure paga eskasa gastatu.

Alkohol basoa eta mutilak dira arazoa gorde ezazu ondo usoa.

III
Gaurko neskatxa moderno eran usoa aspaldi irten zen began.

Hegan badabil utzi bakean baina ez erori droga tartean.

Droga kontua arrazoi gabe debekatua ez da ez ona ez pekatua.

IV
Sexua, drogak proba dituzu dirudienez dena eginda duzu.
Aurrera doaz belaunaldiak gehiago eskatzen du gazteriak.
Ondo da maite gozatu nahi duzun ordura arte kontuz ibili baina jo ta ke.

datua



«Erreskate lan garestiak ordaindu ahal izateko, Rilos itsas-untziaren jabeek, Rilos bera saldu behar izan zuten. Erreskate lanak egin zuen enpresari saldu zioten. Zenbatean? DOLAR BATen truke»

esan dute

«Euskara aberri bat da»

“Lokarri sekretu eta sakon batek, eta ezerk hautsi ezin izan duena, elkartzen du (...) familia euskaldun misterioitsua. (...) Euskara aberri bat da, ia erlijio bat esan dut. Esaiozu hitz bat euskaraz baseritar bati mendian; hitz hori baino lehenago apenas zinen gizon bat berarentzat; orain bere anaia zara”

* VICTOR HUGO Idazle frantsesa

erratak

AGATE DEUNA TXAPELKETA DELA ETA
Aurreko alean Agate Deuna Txapelketa Gorrondatxe Abesbatzak Getxon irabazi zuela esan genuen. Ez genuen zehaztu, Erromoko irakurle batek jakinarazi digunez, Getxon Txapelketa bi antolatzen direla: bat Erromo-Areetan eta bestea Algorta-Getxon. Gorrondatxek Algorta-Getxokoa baino ez zuen irabazi.



Penitentea

Inauteria amaitu da. Mozorroaren, maskararen azpian ezkutatu izan gara irri eta

barre genbiltzala. Orain Aste Santuaren atarian, garizuman murgilduta gabilta.

Laster prozesioak, penitenteak etorriko zaizkigu baina, hala ere, maskarapean segi-

tzen dugu denok.

Autoerreturua

Egunero-egunero erabiltzen zituen Juliusek egurrezko mahaia, egurrezko aulkia, tinta beltza, luma eta paper zuria. Ordu erdirako bazen ere, egunero-egunero pintatzen zuen zertxobait: lore bat, bere emaztearen irria, zeruak zekarren hodei koloretsuen mapa...

Halako egun batean eseri zen Julius, egunerokotasunean; zurezko aulki batean, zurezkoa zen mahaiaren aurrean eta hantxe izan zituen tinta beltza, luma eta paper zuria ere. Egun hura, ordea, berezia zen Juliusentzat, bizitzak dakarkigun angustia existentzialaren presondegian, bat-batekotasunak eskaini zion espontaneotasunean hasi zen bere erretratu pintatzen, eta tintatzen. Tintaren aztarnari jarraituz, bere eskuineko eskuaren atzamarrak egiten zutena ezin zuen saihestu. Bere atzamarraren muskuluek, sarritan erabiltzen zuen arrazionalitatea gainditzen zuten.

Amets gaiztoa izan zen hura; mahaia tintaz zikin zegoen, lumak bere eskuineko eskuan jarraitzen zuen, atzamarrarekin bat eginez, sinbiosian. Zurezko mahaiaren erdian, ikaragarriko beldurra sentitzen zuen pertsona zen Julius.

USOA IRIGOIEN



GETXO RUGBY TALDEAK bere XXV. urteurrena ospatzen dabil. Ekainera arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtebetetze hain berezi hau dela eta. Adibidez, apirilaren 17an, taldearen ibilbidea laburbilduko duen erakusketa zabalduko dute Algortako Kultur Etxean. Goiko argazkiak, martxoaren 18an beteteranoen Euskal Selektzioak Getxokoaren aurka jokatu zuen partidukoak dituzue. / ARGAZKIAK: ALFONSO JIMÉNEZ

San Jorge eta herensugea



Zer eskatzen diozu bizitzari?

EGILEAK: ITZIAR PORTILLA, JANIRE ITURRIAGA, AIALA ELORRIETA & KATRIN MUGERZA




Zoriona, hortik irtetzen da beste guztia. Urko Zabala, ikaslea (Getxo)



Osasuna, maitasun asko eta zer gehiago? Dirua egon dadila, lana eta lagunak. Egoitz Urrutia, zurgina (Larribasterra)



18 urte dituzunean dena espero da, 81 dituzunean luzapen bat bakarrik; ni tartean nago. Antonio Rupérez, aktorea (Leioa)



Pufi, ezebe, ke ba. Gitarra on bat, osasuna eta amodioa. Zigor Parda, ikaslea (Berango)



Lana topatzea, familia bat osatzea eta ahalik eta arazo gutxien izatea zoriotsua izateko. Olatz Campos, ikaslea (Getxo)



Zoriona. Ez dakit zer... amodioa, dirua... Mónica González, okina (Larribasterra)



Ikasketak bukatzea eta gero etorriko da gainontzekoa. Lauren Postigo, ikaslea (Berango)



basurto
algorta S.L.
altzariak

T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta



GIZONENTZAKO MODA



Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78

T: 94 491 27 34

VILLABOTAS
JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO



TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882



UMEAK
GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

Andoni Aizpuru

Telebistan txiripaz sartu zen, eguraldi iragarpenekin ezagun bihurtu zitzaigun eta harrezkero, egunero aurkezten duen Bertatik Bertara saioak 900 programa bete ditu. Elorrion duen baserrian hiriko zalapartatik aldentuta bizi da eta duen denbora libre apurrean, atxurrean, hormak egiten edo loreak zaintzen ibiltzen da. Ezinbesteko jarduerak ditu egunero-egunero lanera pilak kargatuta joateko.

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

“Carpe diem egiten ari naiz; unea topera aprobetxatu eta geroak esan beza”

“Baserritik bizitzea ez litzaidake batere axolako”

—Nor da Andoni Aizpuru?

—35 urteko mutil gizon bat (ia gizontzen ari naiz baina oraindik gazte sentitzen dut neure burua), txiripaz telebistan sartu zena orain dela zazpi urte pasatxo eta hementxe dabilena saltsero-saltsero, beti bezala.

—Ez zara urteak kentzen ariko, ezta?

—Ez, ez. 35 urte dauzkat eta erdixantxatan erdi-serio esaten dut oraintxe nagoela onenean. Oso momentu onean nago bai lan aldetik, bai familia aldetik. Carpe diem egiten ari naiz; unea topera aprobetxatu eta geroak esan beza. Ilea urdinduta daukat baina neskek esaten didate, eta dexentek gainera, oso ondo gelditzen zaidala. Ez dakit egia izango ote den baina sinistea komeni zait.

—Txikitan zer izan nahi zenuen?

—Ez naiz akordatzten. Oso buru txarra daukat. Txikitako oroitzapen batzuk gogoratzen ditut baina ez daukat oso garbi. Badakit kokortu eta gero, gaztetan, ETBko lehiaketa batean telebistan eguraldia aurkeztea gustatuko zitzaidala esan nuela. Orain dela hamar urte izango zen hori. Handik hiru urtera casting baterako deitu zidaten eta hemen nago. Eguraldia aurkeztea asko gustatzen zitzaidan baina telebista aurkezle izan nahi nuenik ezta inondik inora. Nik uste zeozer izatekotan Felix Rodriguez de la Fuente bezalakoa izan nahi nuela. Berarekin erabat liluratuta nengoen. Gero jakin dugu

beti ez zuela oso ondo jokatu baina naturzalea zela uste dut eta oraindik miresten dut.

—Zerk dauka Aizpuruk egiten duen orok hainbeste arrakasta izateko?

—Nik zerbaitetan asmatu baldin badut jendearengana iristen izan da. Telebistako aurkezleon lana informazio bat ematea da. Jendea etxean dago eta gauzak entzun eta ikusi nahi ditu. Azken batean ni saltzaile moduko bat naiz. Badaukagu produktu bat, lana dena, eta nik jendea iri hori saldu behar diot. Jendea gustatzen zaio nik nola saltzen dudana produktua. Produktuak ere erakar-garriak egiten ditugu. Eguraldian badaukagu akats hori, saltzen dugun hori batzuetan ustea dela. Asmatzen ez dugunean egurra ematen digute baina ez gara hain gaizki moldatzen. Azken batean komunikatzaile edo esaten zaion hori bada nonbait nire fuertea. Jendeak esaten du eta hala adierazten du, behintzat.

—Txiripaz heldu zinen eta ia aditua ematen duzu kontu hauetan.

—Zazpi urte daramatzat telebistan ia etenik gabe, egunero eta gainera bi-hiru aldiz agertzen. Horrek erretzeko arrisku handia dauka. Baina aditua? Ez, ni aritua naiz kontu hauetan. Eguraldi kontuetan adibidez, esperientziak izugarriko garrantzia dauka. Baina zazpi urte eta marxa horretan eskarmentu polita hartu dut.

—Hainbeste lan eginda zer egiten duzu beti hain umoretsu egoteko?

—Egia esan ni beti izan naiz pertsona umorekoa. Orain gure zuzendaria den Eli Garmendiari, behin entzun nion esaten ni oso gutxi aldatzen naitzela naizen modutik etxera iristen naizen modura. Badago jendea kamarak erabat antzaldatzen duena. Eta ni gutxi aldatzen omen naiz. Hor ere sekretua egongo da beharbada. Jendeak etxekoa moduan ikusten nau eta hori konprobatzen dut kalean. Dena den, ni beti izan naiz oso umore onekoa, orain arte behintzat bizitzak aurpegia eman dit. Bi alaba dauzkat, baserri batean bizi naiz mendi punta batean, atxurrean aritzen naiz, stressa botatzen dut. Lanbide honetan ez gara fisikoki nekatzen eta kanpoan dauzkadan orduetan stressa botatzen dut. Ia-ia egunero egiten dut. Ezin ditut hamabost egun pasatu lan eginez eta beste ezer egin gabe. Stressa bota egin behar da, barruan utziz gero kalte egiten du. Baina irtenbidea eman ez gero hurrengo goizean pilak kargatuta etortzen da bat.

—Hain ezagun izateak kalte ala mesede egin dizu?

—Ez kalte eta ez mesede. Batzuetan ezaguna izatea mesedegarria da. Ez da entxufe izatea, nik ez dut aprobetxatzen nire ezagun izate hori. Baina egia da gero kaltea ere edo jendearen txapa aguantatu behar dela askotan. Ez nago ni kexatzeko moduan gehienak oso atseginak direlako, eta normalean jendea nahiko edukatua denez



“Oraindik beste hamar-hamabost urterako roiloa badudala iruditzen zait”

gauza txarrik ez du esaten. Hala ere, badaude batzuk oso esker txarrekoak eta horiekin ia pazientzia pixka bat galtzen hasita nago. Baina ezaguna izateak badauka alde txarra ere eta jendeak uste duena baino askoz txarragoa da. Gu hemen ez gara ospetsuak, Espainiako edo Frantziako aldean. Guk ezin dugu dirurik atera, eskusibarik saldu, eta jendearen txapa aguantatu behar dugu. Baina hemen jende normala dago eta ezin da beste batzuekin konparatu. —Aukera izanez gero, eskusibarik salduko zenuke? —Ez, ez. Orain ere izan ditut propo-

LABUR-LABUR

- Kanta bat... Xabier Letek abestutako "Xalbadorren heriotzean"
- Liburu bat... Atxagaren "Behi euskaldun baten memoriak"
- Jateko... Urdaiazpikoa
- Leku bat bizitzeko... Gabiria
- Leku bat bisitatzeko... Urbia
- Egun perfektu bat... Edozein egun, anonimoa.
- Akatsen bat... Nahiko kuadrikulatua naiz, programatua.
- Bertute bat... Apal esanda, gauzak egiteko ahalmen handia daukat.

sameanak, ez saltzeko noski, eta ez. Ni Andoni Aizpuru naiz telebistan, eta hortik ateratzerakoan etxera noa eta etxean Andoni Aizpuru aita, senarra, nire amaren semea eta anaia naiz. Baina horrelakorik ez, ezta pentsatu ere. Hori oso garbi daukat. —Zerbaitek loa kentzen al dizu? —Oso gauza gutxi. Ez naiz lo ononekoa baina nahiko ongi daramat ardura eta malaletxei neurria jartzeara. Orain arte egia esan ez dut arazo latzik izan, oso zorte ona eduki dut bizitza honetan. Datorrenean, beharbada, loa galara-

ziko dit zeozerk, baina orain arte ez. Egunen batean haserre joango naiz etxera gauzak ez direlako ondo atera. Baina nahiko ahalmen badut hori ahazteko eta behar duen garrantzia emateko. Askoz pertsona estuagoak ezagutzen ditut nire inguruan. Egia esan, paso egiten dextente dakit. Muslaria naiz eta kartarik ez badaukat, badakit paso egiten. Karta hobeak izango ditut, ezta? Loa alaba txikiak galarazten dit. Oso lo onekoa da baina goizeko lauretan goseak esnatzen bada, biberioa eman behar zaio eta niri tokatzen zait biberioa prestatzea. —Programaren izaerak asko launduko du. —Bai, Bertatik Bertara askoz lasaia goga da. Geu ere informatiboen barruan sartzen gara baina aldea badago. Albiste horiek batetik oso hotzak dira eta serioak. Gureak bestelako kontuak izaten dira. Beste erritmo bat da, beste giro bat. Nik albistegiaren lan egin izan dut eta ez naiz oso ondo sentitu. Nahiago ditut Bertatik Bertara bezalako saiok. —Hala ere, Euskal Herriaren egoerari buruzko iragarpenik izango du Andonik. —ETAk su-etena hautsi zuenetik bi hilabete-edo egon dira abertzale jendeak oso gaizki ikusi duguna. Berdin zait zein koloretako abertzaleak izan, baina lehengo egoera hartara itzuli behar dugu. Hemengo abertzaleen elkarlanak ekarriko du etorkizuna. Bestetik, garrantzitsua da indarkeriari uko egitea, bestela ez dugu elkar ulertuko. Indarkeria desagertzen baldin bada, nik uste Madrilen aurrean eta Parisen aurrean indar handia egin dezakegula. Sueten garaian itxaropen handia zegoen eta su-etena hautsi egin zenean jende asko erori zen. Hauteskunde batzuk izan dira, emaitzak hor daude, baina nik benetan ez dut uste emaitzak asko aldatu direnik. Jendea oso gutxi aldatzen da; hemen nahiko garbi dago zer dagoen. Nik neuk lehenengo puntu horretara itzuli nahiko nuke eta elkarlan horretatik etorriko da emaitza. Modu baketsuan, horretan behintzat oso ziur nago. Elkarrekin lan eginez gero, nik uste, gauza handiak egin daitezke. Madrilen oso urduri jarri ziren hemen abertzaleak batu zirenean. Hilketena

oso bide arriskutsua, antzua iruditzen zait. Hortik ez goaz inora, okerrera izatekotan eta nik, behintzat, okerrera joatea ez dut gustuko. —Eta eguraldiari dagokionez? —Nik ez dut tenporetanitsu-itsuan sinesten baina gustatzen zait horiei begiratzea, epe luzera iragarpenik egitea ez dagoelako. Azken tenporen arabera udaberriko lehen bi hilabeteak nahiko lehorrak izango dira. Gero seguraski maiatz-ekain aldera euri pixka bat gehiago egingo du baina ez gehiegi. Beraz, ez dira oso albiste onak hemen udaberriaren euria udan ez du egiten eta lehorreak etortzen dira. Ni baserrian bizi naiz, ez baseritik, eta badakit zer den hori; udaberri euritsua izatea gero uda ona egiteko. Garaian garaikoak. —Urte batzuk barru zelan ikusten duzu zeure burua? —Hor bai ez dudala iragarpenik egiten. Ez aldatzea espero dut. Nahiko lanbide alua da hau, aurkezlea asko erretzen da, eta hartu eta zaborrara botatzen dute. Baina oraindik beharbada beste hamar-hamabost urterako roloa badudala iruditzen zait. Ez dago zertan hain gazte izan. Agian telebistan egongo naiz, agian ez. Neure burua beste lan mota asko egiteko gai ikusten dut, oso ezberdinak. Baseritik bizitzea ez litzaidake batere axolako. Badakit zaila dela eta praktikoa izan beharra dago baina gustatuko litzaidake. Saltzaile moduan ere balioko nuke, seguraski. Hemendik botatzen bagaituzte aurkituko genuke zerbait. Oso baikor nago momentu honetan, gero etorriko dira etorri beharrekoak. —Biografia idazteko edo iragarpenekin libururik egiteko asmorik? —Ez dut uste. Oso buru txarra daukat eta arazo handia izango nuke.

Gainera ez nuke jakingo zer idatzi eta ez zait iruditzen interesatea izango litzatekeenik. Gauza interesante horiek ez nituzke kontatuko, noski, horiek sekretuak direlako. Eguraldiaren kasuan, iragarritasuna hiru-lau egunetan bukatzen zaigu, beraz, hor ez dut batere etorkizunik ikusten. n

HUTSUNEAK BETE

Ezin izango nuke bizijan eta Euskal Herrian bizi barik
 Ezin dut jasanjende desordenatua
 Mundua hobeto joango litzatekedenok aldamenekoari
laguntzen saiatuko bagina
 Zoriontsua izatekotxiripa handia behar da
 Beldurra ematen ditingurukoen heriotzak

liburuak

oroimenaren hitza



TESTUAK: J. A. / ARGAZKIAK: M. M.

Gure historia

Ikastolen historiari buruzko liburua idatzi du Idoia Fernandez algortarrak

Ikastolen gaia ikuspegi historikotik landu gabe zegoelako kezka bultzatuta ikerketa bat abiatu zuten Idoiak eta bere lankideek. Horren fruitua bere tesi doktora- la izan zen eta tesi hori da hain zuzen ere, liburu honen oinarria. Datuak jasotzeko, iturri idatzirik ez zegoenez, ikastolak sortu ziren momentuko pertsona esanguratsuenetara jo zuten elkarriketa sakonak egiteko.

Liburuak lau atal nagusi ditu: lehenengoak gerraurreko euskal eskolen azterketa jasotzen du; bigarrena, lehenengo ikastolako irakasle izan zen Elbira Zipitriaren itzalpean sortutako Donostiako etxe eskolei buruzkoa da; hirugarrenak, ikastolen

mugimendua jorratzen du eta laugarrenak ikastolen instituzionalitze prozesua azaltzen du.

Idoiaren hitzetan, ikastolen mugimendua Euskal Herriaren emaitza da eta milaka pertsona sentitzen dira proiektu horren partaide. Lan honekin herriari berak egindakoa bueltatzeko asmoa izan du. n

OROIMENAREN HITZA
UEU Udako Euskal Unibertsitatea
302 orrialde
2.700 pta.

Ezkerrean, Idoia Fernandez liburuaren ale batekin

GETXOREN ERRETRATUA

Bi urte luzez lanean aritu ondoren, martxoaren hamarrean, Igeretxen eta hainbat gonbidaturen aurrean, Getxo Fotografia liburua aurkeztu zuten egileek: Pedro Zarrabeitia, Konrado Mugerza eta Maria Elisa Zorriqueta (azken honek ez zuen han egotetik izan). Getxoren erretratua egin nahi izan dute eta horretarako 300dik gora argazki bildu dituzte lau atal nagusitan banaturik: Natura, udalerriak duen inguru naturalari buruzkoa; Marea, Getxo itsasokoari eskainia; Aterpea, Getxo baserrikoari eta hirikoari eta, azkenik, Jendea, getxotarren bizimoduaz, kulturaz, zentzu zabalean. Liburuak ez da argazki liburu hutsa, badago testurik ere: sarrera gisakoak, herria eta gertakariak historian kokatzeko, argazki oinak eta poemaren bat edo beste. Hitzak, poemak, ikonoak eta diseinua bera ere (Unai Molinaren egina), irudien gehigarri dira. Liburuak (Udalaren dirulaguntzaz argitaratua) euskaraz eta gazteleraz idatzia dago, baina egileek frantsesez eta ingelesez ere argitaratua izatea nahi lukete. Herriko liburutegietan dago salgai (5.000 pta.). Merezki du.

Ezkerrean, liburuaren azala; behean, aurkezpen ekitaldiko une batzuk





« Azoka Badami-n (Karnataka) s Ganges ibaia Benares-en s X. mendeko eskultura, Jain Santua, Gomateswara (Karnataka) s Badami (Karnataka) VIII. mendeko tenploa

India bidaiak

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
NAIARA MADARIAGA

India, kultur aniztasun eredu

Naiara Madariaga algortarrak, lehenengo pertsona kontaktzen digu Indiarra egin zuen bidaiaren esperientzia



Karrera ekainean bukatuta eta aurrezki polit batzuk poltsikoan nituela, Indiarra joateko aukera sortu zitzaidan; Algortako beste lagun bat han neukan. Berak lan oporrak zituen eta elkarrekin Indiatik zehar bidaiatu genezakeela pentsatu genuen. Halaxe egin ere. Nire bidaiaren lehenengo hamar egunak bere etxean eman nituen, New Delhi-n.

NEW DELHI

Aitortu behar dut egunak pasatu ahala hiriburua infernua iruditu zitzaidala. New Delhik, Indiako hiriburuak, 12 milioi biztanle ditu. Bertan sekulako kutsadura dago; pobrezia, jendetza, trafiko kaotikoa eta desmardre itzela.

Kalean bisibilitatea eskasa, lausoa da airearen kutsaduraren ondorioz. Hirian bertan, eraikin garaiak eta txabolak nahasturik daude inolako ordenarik gabe. Errepide nagusietatik auto arruntak nahiz gamelu edo elefanteak ikus daitezke; trafikoa ez dauka inolako kontrolrik, hau da, autoak nahi duten aldetik doaz, ondorioz, kutsadura akustikoa itzela da... eromena! Ausardi handia behar da errepide horietatik gidatzeko.

Jendetza izugarria dago, eta gehienetan indiarrak gainera etortzen dira diru eske edo edozer gauza saldu nahian. Begibistakoa da mendebaldekoak garela eta begirada guztiak guri zuzentzen zaizkigu etengabe...

« Hampi (Karnataka), ijito indiarrak

New Delhitik hiru orditara Agra izeneko herria dago eta bertan, Taj Mahal tenplu famatua bisitatu nuen: harrigarria.


HEGOALDERA BIDAIA

New Delhitik Cochin izeneko herrira hegaz egin genuen, Delhitik 2.000 km. hegoaldera; ia-ia tropikoan egon ginela esan daiteke. Bertatik abiatuta eta iparralderako bidea hartuz, hainbat herririka bisitatu genuen; horrela 1.000 km. ibili ginen.

Guztira lau lurralde ezberdin bisitatu genituen: Kerala, Tamil Nadu, Karnataka eta Andhra Pradesh. Bakoitzak bere dialektoa, erlijioa, ohitura eta janzkera ezberdinak ditu.

Indian hiru dira erlijio talde nagusiak: hindiak, musulmanak eta kristauak; gainera, horietako bakoitzak baditu korrante ezberdinak. Hizkuntza ofiziala india da baina ingelesa eta beste herri hizkuntza batzuk ere badira: urdua, bengalia, tamila... india hizkuntza ofiziala izan arren, hegoaldeko herrixketan nekez hitz egiten dute hindiz, ezta ingelesez ere. Kulturen, hizkuntzen eta erlijioen nahaste-borrastea itzela da.

Dena den, Delhi hiri handiaren aldean, hegoaldeko nekazal herririka hauetako jendea askoz ere lasaia dago eta atsegina dago. Ez daude turistak ikustera hain ohituta eta askoz alaiagoak ere agertzen dira; gainera ez dira hiriburuan bezain gogaikarriak. Herririka hauetan denetarik ikusi genuen: hondartza paradisiakoak, oihan tropikalak, amaigabeko soro



ikusgarriak, VIII. mendeko tenpluak, aztarna historikoak, indiako urjauzurik garaienak...

Honen guztiaren ondoren Guntakaleraino iritsi ginen, handik berriro Delhira abiatu ginen. 40 orditako tren bidaia izan zen; gau bi eta egun oso bat, guztira 1.000 km. Hori bai, txartela 2.000 pezeta eskas kostatu zitzaigun. Esperientzia paregabea izan zen; ez dut sekula ahaztuko. DELHI ETA BENARES

Delhin pare bat egunez atsedena hartu, ondoren ekialderantz jo genuen, Benares-eraino, 600 bat km. Trenez 16 bat ordu eman genituen.

Bertatik Ganges ibai famatua pasatzen da eta hara biltzen dira erromesak arima garbitzera. Bertan bainatuz gero jainkoaren bedeinkapen guztiak jasotzen omen dituzte. Haietaz ohorea da bertan hiltzea. Ibai ertzean kremazioak egiten eta

hauek, turistentzat ikuskizun erakar-garri izaten dira. Hildakoa diruduna bada gorputza erre egiten dute, eta ondoren errautsak ibaian barreiatzen dituzte; hildakoa txiroa bada, berriaz, gorpua erre barik zuzenean jaurtitzen dute Ganges ibaira. Nik ez nuen aukerarik izan baina esaten dute sarritan gorputz zatiak ikus daitezkeela ur gainean jitoan... Bertakoak goizero hartzen dute bainua ibaian eta ura ere edan dute. Hiri barnean, oso normala izaten da hildakoak, hilkutxarrik gabe, autoen gainean garraiatzen ikustea ibairako bidean; harrigarria.

Benares-etik Nepaleko mugara 200 bat km. baino ez daude baina, zoritxarrez, ezin izan nintzen bertara ailegatu, ordurako Delhira bueltatu behar nuelako, Frankfurterako hegazkina hartzeko. n



Populazioa: 915.000.000
Biztanle-dentsitatea (bizt./km²): 288,6
Hiriburua: New Delhi
Hiri nagusiak: Bonbai, Delhi, Kalkuta
Erlijioa: %80,3 hindu, %11 musulman, %2,2 kristau, %2 sikh.



JAKINGARRI

Honelako bidaia bat egiteko, garestiena hegazkin txartela izaten da; 100.000 pta. inguru. Baina bertan bizitzea benetan merkea da, izan ere, guk bisitatutako hotel edo hostaltxoetan 300 pta. inguru ordaintzen genituen gau bakoitzeko. Janaria ere oso merkea izaten da, nahiz eta nahiko zaila izan mendebaldeko tankerako janaria aurkitzea. Bertakoa gehienetan oso —baina oso— bizia, pikantea izaten da eta beherantzeko bat baino gehiago eragin dezake. Bestetik, artisautza polita izateaz gain, nahiko merkea da eta batek baino gehiagok, etxerako bueltan, hegazkinean gehiegizko pisua izan du. Hori bai, azkenean tratua, erregateoa, zaletasun bihurtzen da, ezin baitaiteke inoiz eskatzen duten lehenengo prezioa ordaindu.

argazkiak

gileak nukeratuak


ARGAZKIAK: ASIER MENTXAKA



ASIER MENTXAKA



Hamahiru urte zituela hasi zen Asier Mentxaka argazkigintzan; gaur egun 28 ditu. Mexikon, Nepalen, Indian eta beste hainbat lekutatik ibili da bere kamerarekin. Hainbat sari eskuratu ditu han eta hemen bere zuri-beltzezko argazkiengatik. Gaur egun, Bilboko itsas adarrari buruzko erakusketa bat prestatzen dihardu.



Ezkerretik eskuinera, goitik behera:
 Olabeagako kaia
 Erandio
 Malabaristak Mexikon
 Azpilikueta, inauteriak
 Txiapas (Mexiko)
 Indian
 Tolosa, inauteriak
 Paisaia
 Guggenheim

GAZTANAGA
INTERSPORT

Lortu zure puntuak **HEMEN!!**

Kiroletarako behar duzun guztia!

Amesti 8 Sarrikobaso 42 Sabino Arana 93
T: 4910605 T: 4300397 T: 4646617
ALGORTA ALGORTA LEIOA

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Bodeguilla

Butron

gurean euskaraz!

Bidebitarte 5 ALGORTA

lagundu...

...UK egiten...

...bele zure harpidetza fita
(fuzi 2. orrialdea)

kirola



Arkaitz Elgezabal eta Xabier Aspiunza

Pilotariak puntan

Getxoko eskolako bikote bi Bizkaiko txapelkunak dira

Getxoko Pilota Eskolak hamazazpi urte daramatza jo eta ke lanean. Eskolako umeekin eman zituzten lehen urratsak eta ondoren kluba eratzea erabaki zuten. Orduetik hona, Jokin Alonso ibili da presidente lanean eta lehiaketetan ez zaie batere gaizki joan. Aurten xisteran Arkaitz Elgezabal eta Xabier Aspiunza gazteak Bizkaiko txapelkunak izan dira, paletan Aritz Larrinagak eta Gotzon Garaik lehen postua eskuratu dute, eta pala motzean, Arkaitz Zarraga eta Koldo Larrinaga hirugarren gerditu dira.

Orain arte eskolatik ez da pilotari profesionalik atera baina seguraski aurten baten batek debutatzeko aukera izango du. Hiru modalitatetan banaturik daude pelotariak. Horietatik 43 gazte eskupilotan dabilta, 32 herramintan eta 26 xisteran. Partiduak Faduran eta Andra Marin jokatzen dituztenez, herrigunetik urrun, ikusle kopurua ez

da handiegia izaten. Txapelketetan egoera zerbait hobetzen da baina gehienetan jokalarien animatzaile gurasoak izaten dira.

Azken urteotan eskola kategoria guztietan lehiatu da eta emaitzak ezin hobekak izan dira. Helburu nagusia maila horri eustea da, nahiz eta eskupilotan zailtasun handiagoak dituzten. Beste herrialde batzuen aldean, Getxon ez dago kirol honetan ohitura handirik. Bitartekoak lortzeko orduan kirol gehienentzera zailtasun ugari dituzte. Ez dute sarreerarik kobratzen baina dirulaguntza eta gurasoen partehartzeari esker aurrera doaz. Denboraldi bakoitzean ume berri asko izaten dituzte eta horrek lanean jarraitzeko gogoak ematen dizkie. n

Toki bila

Plentziako Piraguismo Eskolak hamar urte bete ditu aurten

TESTUAK: ESTI EZKERRA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

Getxotar batzuen ekimenez Plentziako Piraguismo Eskolak 90. urteko urtarrilean ikusi zuen argia. Orain arte metro geltokitik hurbil, futbol zelaiaren alboan izan dute egoitza. Baina gutxi barru eta hainbat nekeren ostean, udalak utzitako hondartzako lokal berrira joango dira. Gurasoek harriz harri eraikitako kluba dugu Plentziako piraguismo eskola.

Uribe Kosta, Getxo, Leioa zein Bilboko umeek hartzen dute parte elkarte honetan; gaur egun 40 ume inguru dabilta. Ez da erraza eskola aurrera ateratzea. Udalen eta Aldundiaren dirulaguntzak ez dira nahikoak izaten eta gurasoek kuota batzuk ordainduta laguntzen dute. Elkarteko presidentek, Marian Moralesek, asko borrokatu behar izan du piraguismo eskolak herrian tokitxo bat izan dezan. Hala ere, pozik dago jende gazte ugari dutelako eta berak nahiz gurasoek etorkizunean eskola egungo gazteek eramatea espero dute. Gainera, txapelketetan emaitza onak lortzen ari dira

eta nahiz eta jakin hemengo egoera Gipuzkoan dagoenaren berdina ez dela, apurka-apurka piraguismoa zabaltzeko asmoa daukate.


Erantzukizun guztiak ondo banatuta daude piraguismo eskolan; garai batean ikasle gisa hasi zirenak dira gaur egun entrenatzaile: Jorge, Eneko eta Ibon. Beraiek ere txapelketetara joaten dira baina talderen bat entrenatzeko erabakia hartu dute. Horrek entrenatzeko denbora kentzen die eta oraindik ikasten ari direnez, batzuk ez dira zenbait lehiaketetara joaten. Jorge Van Horelbeke orain zazpi bat urte hasi zen piraguismoan. Bizkaiko txapelketa, Euskadiko bigarrena eta Loirako maratoian garaile izan da, besteak beste. Elektronika ikasketak bukatze- ar ditu eta datorren urteari begira profesional bihurtzeko asmoa du. Elkarteko gurasoen hitzetan piraguismoarako bizi da Jorge. Eneko Lopez hiruretatik beteranoena da. Espainiako txapelketan birritan hirugarren geratu da eta Bizkaiko txapelketan bigarren postua eskuratu



Nahi duenak eskolako atek zabalik aurkituko ditu

du. Iaz gazteenak entrenatzen hasi zen. Ikasketek denbora asko kentzen diote; entrenatzeko denboraz estu ibiltzen da beti. Momentuz ez du ezer planifikaturik baina ahal duen arte lehiatzen eta umeak entrenatzen jarraitzea gustatuko litzaioke. Ibonek, berriz, enpresa-ikasketekin batera darama piraguismoa. n

Leioa eta Berango Munduko txapelketan



HOLANDAKO munduko goma gaineko sokatira txapelketan, gure bi taldek emaitzak ezinhobeak lortu dituzte. Leioako nesken taldeak 520 kiloko mailan brontzezko domina eskuratu zuten. Bigarren urtea dute talde bezala eta etorkizun polita badute. Berango Torrekolanda taldea, berriz, gizonezkoen 600 kiloko mailan hirugarren postuan gelditu zen eta, beraz, beraientzat izan zen brontzezko domina. Esperientzia handia du Berango taldeak, zazpi urte baitaramatzate lehiari eta palmarek bikaina dute. Holandako mundialean Euskal Herriak orotara hamahiru domina irabazi zituen, zortzi klub mailan eta bost nazio mailan. n

jan

aitor elizegi



Foie eta sagarrezko gaileta karraskaria

txerri-oinarekin

Labean sagar-xafla mehe batzuk karamelatu behar dira; hauek foie-eskalope bat estaltzeko erabiliko dira.

Piperbeltz beltzezko parmentieu bat eta txerri-oin batzuk —hezurgabetuak eta egosiak— lagun dituela zerbitzatu.

Inguruan, berriz, Armagnac-karamelua isuri. Azkenik, gaineratu uso-saltsa edo, hori ezean, ehizako hegaztien zukua. n



edan

itsaso arana, jolastoki-koa



Kata

Azpilicueta krianza 95

Mahatsa: "tempranillo" eta "mazuelo" •

Alkohola: %12,5 •

Bodega: Bodegas AGE SA, Fuenmayor •

Latorrizko lizendapena: Errioxa •



Begiari gerezi kolorea erakusten dio ardo honek, garbia. Aroma dotorea du, indartsua. Barrikan jatorria duten bainilazko ikutuak azaltzen dira, erre ikutuak ere bai. Ahoan freskagarria da, orekatua, afrutatua eta iraupen egokikoa. Saltsadun okelak jateko oso egokia. n

Jakin

Ardoaren jantzia

Ardo botila baten etiketan halabeharrez agertu behar diren datuak:

- Ardoaren jatorria, jatorrizko izendapenarekin, baldin badauka.
- Egilearen izena.
- Botilaratzen duen enpresaren izena eta helbide soziala.
- Botilaren edukiera
- Alkohol maila.
- Botilaratzailearen erregistro zenbakia.

*Gaineko kapsulak, estetikoak gain, badu prezintzo funtzioa.



Dario, Aitor, Alfonso, Mari eta Gaizka Escudero "Pipi"

Villabotas jatetxea

non jan Pipi-renean

Goi mailako sukaldaritza giro informalean


Arraina gustukoa duenak Villabotas Jatetxea eza-gutu beharko luke, Gaizka Escudero (Pipi) sukaldari gazteak, eta jatebako lemaizainak, ezin hobeto, bere puntu egokienean prestatzen ditu-eta lupinak, erreboiluak... Apal-apal, jeneroa eskuratzeko orduan sorte handia izaten duela diosku. Izan ere, Algortako azken arrantzalea den Karin-ek saltzen dizkio zuzenean itsasoari lapurtutako altxorak. Baina ez da arrainera mugatzen bere sukaldariko trebezia: txuleta eder bat jan daiteke (okela be primerakoa da, Goiri harategikoa) edota ate magritta edo beste hainbat plater goxo. Ez goaz ordenan, baina tira. Hasteko bentreska entsalada eskatzen duena ez da erratuko, baina aukera askoz zabalagoa da. Muga bakarra, urtearen sasoi izaten da, Gaizkak beti kontuan izaten ditu-eta sasoi-

ko produktuak karta osatzerokan. Postreak, guztiak, bertan egiten dituzte, baina bat aipatzearen, Bilboko kanutilloak txokolatez beteak eskatzea merezi du (bere amak, Carmenek, etxean egiten dizkio asteburuero). Ardoari dagokionean, nahiz eta bodegan beste batzuk izan, Errioxakoen alde apustu garbia egin du Gaizkak eta hain dira gozoak guztiak, ia edozein eskatuta ere asmatuko du hara hurbiltzen denak: Muga, Arana, Ardanza... Bitxia bada ere, arrain asko ematen duen arren, jendeak oro har, beltzak eskatzen dituela azaldu digu Pipik.

Ezin da aipatu barik utzi Villabotas egoten den giro informala eta desberdina. Denetarik joaten da hara: lohihartzekodun langile taldeak, korbatadun negozio gizonak, gazte jendea... Horretan asmatu dute.

Laster bost urte beteko ditu Gaizkak Villabotaseko buru moduan eta eskarmentu luze hori igartzen du bezeroak. Eragozpen bakarra, zera: asteburuetan jendez gainezka egoten dela; astean zehar, ostera, patxada gehiagoz eta lasaigo afaldu daiteke bertan; asteburuetan badugu etxean sukaldetan aritzeko astia. n

TESTUA: I. A. ARGAZQUI: M. M.



BILBO MICRO

"1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen"



Elkarte Anonimoa

Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212

ZERBITZU TEKNIKOA
Tf. 4230213
48001 BILBAO

Algorta-Detroit

UNAI ELORRIAGA

Goizeko 7:01 / Algortako edozein ohe. 7:28 / Kafesnea nire muturraren aurrean daukadala uste dut. Ez dakit zer gertatu den ohean nengoetik orain arte. Zulo beltzen bat ia seguru. Ahal dudan modu itxurosoenean gosaldut, hori bai. 7:46 / Metroa bidean noa. Gezurra badirudi ere, haize hotzak gehiago lokartu nau. Euria ari du ziurrenik. 7:48 / Metroko eskailerak jaisten ari naiz. Eskaileretan behera, neurona pare bat esnatu zaizkit eta lotan dauden beste neuronei zaplastekoak jota dibertitzen dira. Nire garunean gertatzen ari den zalaparta horrek guztiak naturaz gaindiko indarrak eman dizkit ('poderes sobrenaturales' Antena treseko marrazki bizi-dunetan); izan ere, hartu behar nuen metroak alde egin didala ikusi dut eskaileretatik bertatik, begietan zarpina dioptria zein baino zein ederragoak ditudan arren. 7:49 / Baina nire indar-naturaz-gaindikoak ez dira hor amaitzen: metroaren zain inguruan ditudan pertsonen pentsamenduak irakur ditzaizkidan ulertu dut. Esaterako, gorbata urdina duen gizon baten buruan sartu naiz. Garun gatazkatsua du gizonak, trajea ondo plantatuta badauka ere. Eszena zitala ikusi dut bere buru barruan: gizona bera agertu da bulego argi batean ete bere eskuek gizon helduago baten lepoari heldu diote. Eskuak estutu ahala, beste gizonak more kolore ikusgarria hartu du. Itotako gizonaren paparrean txartel bat: "Empresaco Naguzia: Don Filisberto Somoza". 7:50 / Izaki finegia naiz ni horrelakoak ikusteko eta ikasle baten burmuin xaloagoan sartu naiz. Hondartza bastante paradisiako batean ikusi dut berau. Hondartzaren bazter batean sute moduko bat dago eta, aldian-aldian, bazka ematen die ikasleak garrei; liburuekin lehenengo, apunteekin hurrena. Halako batean, neskato bat hurbiltzen ari zaiola ikusi dut. Zirri filigranatsua egin dizkio, honezkero ikaslea ez den eta bibidore huts bihurtu den ikasleari. Arreta handiz jarraitu dut nik eszena, harik eta pantailan errobo bi agertu diren arte. Bere burutik atera naizenean konturatu naiz ikaslearen ametsean sortu den neska, metroko andenean dagoen beste ikasle bat dela. Izan ere, mutilak ez dio begirik kendu heldu denetik (7:51n, hain zuzen). Are gehiago, esango nuke mutilaren begietako bat bular artean itsatsita eraman duela neskak unibertsitatera. 7:52 / Besteen ideietan sartzea Telepiztan jatea baino arriskutsuagoa dela ohartu naizenean, metro-zuloari begira geratu naiz, trenbidea noiz beteko. Burua hutsik daukat. 7:53 / Burua hutsik. 7:54 / Badator metroa. Egia esan, nahiago nuke tranbia baletor. 4

“Atxine arda be emoten jaken idiri”

Getxoko betiko nork ez du ezagututen Perune auzoko Ramiro Clavet? Baserritarren artean sikanerano ezagune dogu Ramiro: beti etxaldean bizi izanekoa, auron lurra emonekoagaz bizitzen, igerriten dako ama lurrari deutson begirunea.

Euskaldun peto-pettoa izateaz aparte euskaltzale amorratua be bada, eta ahal deun bakoitzean euskeraz egiteko grina horrek ekarri deutso orain dekon erraztasun eta hiztegi handia. Halan eta duzti be, Ramirok ez dau ikusten bere auzoko gehien artean euskeraz egiteko berak besteko gogoia eta horrek tristura dakarkio: “Hemen Perune ingerun jakin gehienak dakie euskeraz, baia ez deure egiten. Nik, euskaldunek badire, beti egiten dot euskeraz danokaz”



Ramiro Clavet

TESTUA: ANDONI LLOSA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

—Ramiro, zuek baserrikok izan arren itxosora be sarri joaten zintzen ezta?
—Bai, “eskarabile” koisten jotzen gintzen gu, edo atxinekok. Eskarabile bakixu zer dan? Hori da iketza modun. Lehen, bakixu, itxosoko barkuk ibil ziren baporeaz, eta auren iketza ez dakit ixen bazan egurrezko-edo, eta gero erreinkerana bota hondakine kanpora itxosora eta *atxe zan “eskarabile”. Grijon antzeko da, harri txikerrak dire, eta haik harrik gero labara bota eta berotu itzell Baia badinotsut, hau pasa zan ahun urte ingerun, bai... egon zan hor *Arrionako hondartzan baserri bet, fameli bet hemeko, hor jaiota. Eta horrek auki deure gorte zulutute sakon, eskillaraz baxateko, eta hori eskarabile han gorde egiten euren. Beste gauza batzuk be... honek barkuk a galdukeran, honek baporak, han zulon bertan *ostu egiten eurezan gaztaiak eta

azukere eta dana. Eta gero etorri karabineruk —ze lehen hemen ez zan egon guardia zibilik, karabineruk baino— eta hasten ziren etze albotati-eta gauza duztik *jaboten, ia zeozer topaten badaure ta, eta hori eskarabile bere topaten, ze eskarabile topakeran jakiten euren aurrek zelan doaz itxosora gauetan, eta ezin atara ezer be itxosoti.


—Eta peskatan be ez zintzen joaten ala?
—Bai, kañaberaz bai. Bai horra eta bai hara Azkorri... gantxokaz bere *amarratzatan, eta zelan esaten da... *barikueguren ixeten zanen, ordun hartan denporatan gu gaztetan ixenkeran ba koiu bakoitzak gantxo bat, zaharrak eginta, eta gantxokaz zein kañaberaz joan amarratzatan *atxatara, imini trapu zuri bet amarratzari engainaten ba! Amarratzak urten eta gantxoaz

koiu eta baldera. Gero gerra osten honek militarrek iminkeran hemen, fuerten, horrek militarrek itxi bere ez itxosora arrimaten eta halantxe galdut da hori.

—Zeu beti ibili zara etxaldean beharren, ezta?
—Bai, hemen beti. Fabriken egon naz hamazortzi urteaz Euskaldunan ofizio ikisten, baia gero hogeita bat urteaz ama para zan makal eta ama makal egonkeran ba ni erretira egin behar hona etzera...

—Kontaxu zeintzuk ziren sasoi bakoitzean egin beharreko soloko beharrak, Ramiro. Kasu baterako, orain udebarrin...

—Oin honetan sasoiaren patate erein, eta gari zein arto bere ba... aspaldiko garirik ez da ikusten hemen ingerun, baia guk *ezetu egin du gari hemen. Udebarrin hemen azak be, koniflorak, bainak... baia erein baino lelau lurra prepara egin behar da ondo. Gabonatan ingerun, *karramarro dao hor, eta hori karramarro pasa egin behar da solon *kurtzen, gero lurte makinetu, buelte emon lurreri, eta horren osten itxi lurte hile bat ingerun lurte erre egin deile, eguzkiez erretan itxi lurte, lurra beran tenple *koxi dein. Gero, *arek pasa lurretik. Arek dire burnizko hamabost hortzak, harri bet ganen iminten dako eta bai idikaz bai behiekaz egiten da hasikeran goitik behera pasa eta gero kurtzen, ordun lurte lotxen da area modun. Gero dao “exa” bat, “exa” da artez-arte zulo egiteko zera bat, albo bateti bestera zuloz, eta han zuloan botaten da patate edo gari edo dana dalakoa. Exak egineko horrek zuloz gero bardindu egin behar direz, eta bardindu egiten da ostabere arekaz. Gero, lurra itxi egin behar da.



—Entzunte dekot zure fameli beti ibil izan dala idikaz-eta...
—Bai, ze gure aitan fameli etor zan Erandio Goikotik hona, Mezok, eta ixen ziren *karreteruk, beti ibili ziren karreterutzan. Karreterutza da solotan laboren ibilteko beharra, *itaurren ibili solotan. Oin idi-probatan baino ez da ikusten. Guk *auki du hamar *turanko hemen oin urte bi, eta ointxe deku sei, hiru idi-buzterri. Horrek turankok idi gorrik direz, ez dire lodik baia bizkorrak... buenooo...!
—Kontaxu apurtxu bet zelangoak diren idi-probak.
—Idiri amarra egiten dake harri eta narraz eron behar daure, ia zenbet untze egiten dauren. Untze bat hogeita hamar metro dire, eta

berrogei edo berrogeita hamar untze egiten daurez ordu erdin. Horretarako idik ondo prepara egin behar dire, ez pentza ehl, atzo geure idi duztik ibili dire hor solon, erruede nagosi bet narraz eroten, preparaten. Gero a, idik sano ondo jan behar daure baia ez gure dauren duzti, mediden baino. Emon egin behar dako igual bost kilo baba bakoitzari eta gero bitarten sartu egin behar dake *abea, arto urune be emoten dake kilo bi bakoitzeko egunen, hori dana ondo nahastata jan behar daure ze ostantzen arnasa hartukeran puztu eta ito egin letikez idik. Holantxe urtetan daure probatara indar itzelaz. Atxine arda be emoten jaken baia oin ez daure itxiten, atxineko zaharrak

aspirinak be emoten eutsezan idiri eta idik urtetan auren berotute, biztute. Gaur hori dana ez leie emon. Ganera gero kontrol antidoping egiten jake-ta, txize eta odola atarata. n

*BERBAK

- Atxe: erakusle indartua, huraxe.
- Arriona: Arrigunagaren laburdura. Sano normala da euskaldunzaharren ahoan. Beste adibide ugari dago: “Saratxa” (Saratxaga), “Martu” (Martiaru) eta abar.
- Ostu: zenbait kasutan, ohostu. Beste hainbatetan, honetan esaterako, ostendu edo ezkatatu.
- Jaboten: jagoten, zaintzen.
- Amarratzatan: olagarrotan.
- Barikueguren: aste santuko barikua
- Atxatara: haizetara
- Karramarro: kasu honetan, soloko erreminta bat da.
- Kurtzen: gurutzean.
- Egin deile: egin dadila.
- Ezetu: ezagutu
- Koxi dein: har dezan
- Arek: goldea, soloko erreminta.
- Karreteru: itzain (idi-zain).
- Itaurren: idi zein behien aurrean solotan beharran ibiltea.
- Auki du: euki dogu. Getxoko partean sarritan entzuten da “auki”, euki-ren ordez.
- Turanko: idi mota bat.
- Abe: garagarra nahiz oloa adierazteko esaten dan berba



"Tabernatxu" jatetxea

- MENUAK ASTEAN ZEHAH
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientotxe 39, GETXO. T: 491 16 61

DOVER IDIO -

Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA

460 00 38
460 63 41

Ingelesa
Frantsesa
Alemanier

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

I

Iñaki Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Engainatzen zaituzte eta laster jakingo duzu. Zure erantzuna azkarra eta erabatekoa izango da eta zure inguruok ere harrituko dituzu. Baina egin behar duzuna da eta zuk badakizu.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Sasoi atsegin eta baikorra bizitzen ari zara. Baina argi ibili; zure izakerak, bizitzeko moduak eta lorpen profesionalak zeloak piztuko ditu zure inguruan. Ez garrantzirik emon; oraingoz horrek ez ditu kalterik egingo.

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Lagunek babesa bilatzen dute zugan eta zu eskuzabalegia zara; kontuz, nekatu zaitezke. Ezbehar sentimentala edo familiarra bizi izango duzu. Erabili zure berezko indarra egoera samurtzeko.

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Badatoz berriro ere ezegonkortasun emozionalak eta etsipenak. Bestek ez dira errudunak, hortaz, esaten dituzun hitzak neurtu. Arazoa norekin duzun harekin berba egin eta gauzak argitu.

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Iraganeko kontua ilun bat berriro azalduko da. Txutxumutuak hasiko dira eta eteten ez badituzu kalte egingo dizute. Atsedena hartu beharko zenuke eta kontuz kirola egiten badauzu.

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Lanean erne ibili utzikeriagatik-edo akatsen egin dezakezu eta. Erabakiak hartu behar izango dituzu; ahal izanez gero, atzeratu itzazu, zure segurtasun ezak aukerarik txarrena hartzera bultzatuko zaitu eta.

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Pertsona zuhur bat bere hitzekin zure izen ona kentzen saiatuko da; kontuak argitu berarekin. Tentsioek jota zabilza; masaje batzuk komeni zaizkizu.

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zugaz ez dago arrazoiterik; onartu ezazu. Zailtasunei aurre egin beharrean, ihes egiten duzu; segurtasun ezak eta beldurrak jota zaude. Aholkuak onartu eta lasaia biziko zara.

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Gauzak ez dira berez konpontzen eta mugitzen ez bazara aukera onak galduko dituzu, batez ere arlo profesionalen. Egin ahalegin txiki bat.

META

(Irailak 17 urriak 16)
Min egin nahi dizute baina ez dute lortuko, zozertarako balio du-eta zure lagunaren artean duzun izen onak. Osasunari dagokionez, mediku tratamenduz gaintutiko duzun minen bat agertuko da.

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Baikortasuna. Ideia argi mordoia dituzu eta laster egia bihurtzeko aukera azalduko da. Hala ere, prest egon sor daitezkeen eragozpenak gaintitzeko. Bestalde, kontrola itzazu zure gastuak.

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Erraz gaintutiko duzun krisialdian zaude, honek eztabaida antzuek eta tentsioak eragingo ditu, batez ere zure bikote lagunarekin. Osasunak okerrera egingo du; zaindu zure burua.

gurutzograma

1											
2											
3											
4											
5											
6											
7											
8											
9											
10											
11											

EZKER-ESKUI: 1 Harridura adierazteko. Talioa. 2 Pobretasun materiala. Gauza izan. 3 Moztu. Fruta bat. 4 Nota musikala. Musean... 5 Iratxe. Birraitona. 6 Gorotza. Mina. 7 EEBBetako estatu. Kendu aditzaren erroa. 8 Gotorleku militar israeldarra. EHUN. Nitrogenoa. 9 Roetgen. Bete. Esaten. 10 Ohiturak. Margolari arabarra. 11 Potasioa. Alderdi espainola. Peruko hiriburua. Lehenengoa.

GOITIK BEHERA: 1 Amerikakoak. 2 Liberalismoaren aldekoa. Azkenengoa. 3 Pelikularen sentsibilitatea. Bukatu. 4 Jakitun musulmana. Oharra. 5 Azkarra. Atertu aditzaren erroa. 6 Bi. Txantxa. Aluminioa. 7 Afrikako estatu. Eguzkia. 8 Bokala. Likidoa irentsi. Cesioa. 9 Testu ulerkaitzetan ezartzen diren oharrak. Bakarra da. 10 Txinako filosofia bat. Ozentasunez. 11 53. Euskal atzizkia. Titulu otomanoa.

ANGEL ADRIANOREN ISTORIOAK

1

zeruko ateetan, aingeru bat patxadaz itxaroten

adriano... zerua lortzeko jendeari lagundu beharko diozu lurlean...

ederto! ez dakit nondik hasi. delfos-eko irakulua galdetuta?
....
jakinduriaren zeruko putzuan begiratuta?

geroago...

kontxo! ba, ez zegoen, ba, horren urrun joan beharrik...

Amaiera

2

ea!... zerrenda hurrengoa, jainko-gaz berba egiteko!!

dirua!!!

kontua da gizon honegaz ez dudala izango aukera handirik zerura joateko...

amaiera

3

erreskatera!!!

kontxo... erdi etereoaz izatea arazo bihurtuko zait azkenean

Amaiera

Nekane Ardanza

GETXO IRRATIKO ESATARIA

“Langileek Getxo Irratia bultzatzeko ideia asko ditugu,
baina erabakia ez dago gure esku”

Nekane Ardanza kazetaria Getxon jaio zen orain dela 34 urte eta, bere esanetan, algortar amorratua sentitzen da. Neska hau 1988an hasi zen Getxo Irratian lan egiten eta oraindik zeregin horretan jarraitzen du.

—Zein da zure lana Getxo Irratian?

—Getxo Irratian, langile gutxi garen, denetarik egiten dugu. Irratian hamabi urte daramatzat. Hasi nintzenez, esaterako, magazin bat egiten nuen. Gai kulturalak jorratzen nituen batez ere. Baina bi urte pasatu ondoren informatiboetan sartu nintzen eta orain arte erdarazko informatiboetan egin izan dut lan. Baina hori bai, beharrezkoa bada euskarazkoak egiten ere ausartzen naiz.

—Zer da zure lanaz gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

—Duda barik jendearekin harremanetan egoteko aukera izatea da gehien gustatzen zaidana. Eta gutxien gustatzen zaidana... ba, behar bada, askotan mikrofonoen aurrean hitz egiteko gogorik ez izatea (egun txarra duzulako...) eta gainera, irudia mantendu behar izatea.

—Getxo Irratian informatiboak dira nagusi. Ez al zenuke gustuko beste programa mota bat egitea?

—Niri magazin bat egitea asko gustatuko litzaidake. Magazin batean denetarik sar daiteke, sormenezko zerbait da, hain zuzen ere. Niri ant-

zerkia, kalean ibiltzea, jendearekin harremanetan egotea eta abar asko gustatzen zait, eta magazin batek hori guztia egiteko aukera ematen duela uste dut.

—Noizko programazio aldaketa bat Getxo Irratian?

—Hori ez dago nire esku. Erabaki hori ardura hori dutenek hartu behar dute. Haietazko galdera da, haiek erabaki behar dutelako. Nire ustez, herriarentzat oso onuragarria izango litzateke aldaketa hori. Herri batentzat bere gaiak jorratzen dituen irrati bat edukitzea oso positiboa da. Eta nire iritziz, Getxo Irratiko programazioa hobetuko balitz askoz onuragarriagoa izango litzateke.

—Getxo Irratia jende gutxi entzuten omen du. Non dago arazoa?

—Esan dudan bezala, nire iritziz bultzada bat eman behar zaio irratiari. Getxo irrati dila mugitzen duen bitartean kasualitatez topatzen duenak entzuten du. Irratiak ez du inoiz publizitate kanpainarik izan, ez du inolako publizitaterik eskaini... Aukera asko daude hau bultzateko eta langileek ideia asko ditugu baina, esan bezala, irratiak berpizteko aldaketak egitea ez dago gure esku.

—Irratitik aparte zeintzuk dira zure zaletasunak?

—Niri kalean ibiltzea asko gustatzen zait. Lagunekin biltzea, musika entzutea... eta, noski, nire alaba



Maiderrekin egotea. n

TESTUA: VERONICA MUÑOZ

diala FM

Getxo Irratia	87.6
Euskadi Irratia	88.9
Radio Euskadi	91.7
Kosta Irratia	93.2
Euskadi Gaztea	94.7
Gorliz Irratia	95.0
Bilbo Hiria	96.0
Bizkaia Irratia	102.6

Euskararen web-gune berria

www.euskadi.net/euskara interneteko heldidea sakatzen baduzu euskarari buruzko hainbat informazio baliagarri eskuratzeko aukera izango duzu, adibidez: euskararen historia urratsez urrats, euskararen bilakera soziolinguistikoa, (zentsuak, erroldak, inkestak emaitzak...) euskarazko toponimoen datutegi zabal (564.000tik gora toponimo bildu dituzte) eta interesgarria, liburuak (Literatura unibertsala bilduma, Bidegileak, Klasikoak...), bideoak ere ikus daitezke (Hitzaro telebista programak...), euskara lantzeko tresnak (zuzentzaile ortografikoa, hiru hiztegi...), euskararen araubi-



dea eta beste hainbat gauza euskarari buruzkoak. Web-gune hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatuko du eta etengabe berritu, osatu eta eguneratzeko asmoa dute hara jotzen dutenen ekarpenekin. Badago gainera atal bat herritarren galderak, iradokizunak, eskaerak edo bestelako proposamenak luzatu ahal izateko. Aurrera begira, herritarrek hainbat tramite sarearen bidez egiteko aukera eskaini nahi dute. n

ASIER HORMAZA AKTOREA

“Garrantzitsua da norberaren bizitzaren kontrola izatea”

Telebistak ezagunago egin duen arren, aspaldi hasi zen Asier antzerkilan taularatzen. Lanak denbora asko kentzen dio baina, hala ere, getxoztar hau egiten duenarekin erabat maiteminduta dago. Azkenaldian Aitor Mazo eta Patxo Telleriarekin batera “Birus” izeneko obran murgilduta dabil.

Noiz erabaki zenuen aktore izatea?

Ez dakit data finkorik ote dagoen. Txikitatik etxean horretara jolasten nuen eta erabakia hartzeko uanean faktore garrantzitsua izan zen.

Noizbait erabakiaz damutu zara?

Ez, momentuz ez. Ez dakit aurrerantzean zer gertatuko den baina ez dut uste damutuko naizenik, nik erabakitako gauza da bere ondorio guztiek.

Gogorra izango da batetik bestera ibiltzea.

Ez, hori da hain zuzen ere lanbide honek daukan gauza politetako bat. Mugitzen zara, jendea ezagutzen duzu eta esperientziak izaten dituzu. Azken finean, bizitza esperientziak izatea da eta alde horretatik lanbide hau oso ondo dago.

Denbora librerik bai?

Garaia araberak. Azkenaldi honetan nahiko lanpetuta nabil baina neure lanbidera dedikatzea nolabait neure buruari denbora dedikatzea da. Nik aukeraturako zerbait da eta gustura egiten dut. Dena den, neuretzako denbora nola edo hala bilatzen dut.

Taularatzeak urduri jartzen zaitu?

Ez naiz oso urduri jartzen. Funtzio bakoitzeko tentsioa izaten dut baina burua galtzeko moduko urdurasuna ez. Hala ere, nerbio horiek hor jarraitzen dute eta bizitza osoan zehar jarraituko dute.

Maniarik taularatu aurretik?

Ez, baina funtzio bakoitzaren aurretik beroketa egiten dut.

Telebista eta antzerkian zabilta, ezberdintasunik?

Nahiz eta zine, telebista eta antzerkiaren artean berdintsuenak antzerkia eta telebista izan, aldea badago. Telebistak bestelako lasaitasuna ematen du, batez ere grabatuta doanean. Antzerkiak ez, aurrean publikoa daukazu eta, beraz, erantzuna zuzena da.

Non sentitzen zara erosoan?

Bietan. Bata zera besteari bere berezitasuna aurkitzen diozunean eroso sentitzen zara.

Orain jende gehiagok ezagutuko zaituzte.

Telebistak daukana hori da. Oso erraza da telebista piztuta norbait aurkitzea. Dena den, niri ilusio handia ematen dit gazte jendea antzerki obra bategatik nitaz oroitzeak. Antzerkiak gogoratzeak ikutu berezia dauka; telebistan normalagoa da.

Azken antzerkilanean informatika duzue gai nagusi.

Bai, izan ere birus informatikoak gara. Beren bizitza hobetzeko nahian, ordenagailutik ihes egin nahi duten bi birusen historia kontatzen da. Gaiak badu gaurkotetasuna eta betikotasuna. Harrera ona izan du eta horregatik



pozik gaude.

Birus horien ihes nahia noizbait sentitu duzu?

Bai, dudarik gabe. Batez ere lehenago aipatzen zenidan niretzako denbora horren bila. Niretzat oso garrantzitsua eta erabatekoa da nork bere bizitzaren kontrola izatea. Lan egin eta era berean borrokatu beharra sentitu izan dut, ihes egitea baina zentzu onean. Ez ihes egin dagoena atzean utzita, baizik eta helburu jakin batekin. Horrelakoa izaten da nire bizitza.

Etorkizunari begira erronkarik?

Printzipioz gauzak dauden bezala jarraitzea. Hortik badaude proiektu batzuk baina ezer finkorik ez. Antzerkiarekin eta telebistarekin jarraitzea espero dut eta hurrengo hilabeteetan ikusiko dugu plan horiek nola gauzatzen diren.

Eta oporrak noizko?

Ez daukat oporrik. Aspalditik ez dut izan besteen moduko oporrik. Egun libreak bai baina, noski, hori nire esku dago. Zerbait ezetz esan eta oporrak izango nituzke, baina ez da hori nire asmoa. Izango ditugu izan beharrekokoak.

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

2000. URTEAN KIROLA
EUSKARAZ DATOR
AEROBICA

martxotik ekainaren 29ra arte



Aerobica euskaraz

NON: SAN NIKOLAS IKASTOLAN

NOIZ: Astelehen, astearte eta osteguntan gaueko 20:30etatik 21:30etara.

PREZIOA:

- Bazkideentzat: 3.000 pta
- Ez bazkideentzat: 3.700 pta

IZENA EMATEKO:

Diru sarrera kontu korronte honetan egin behar da: 3035-0108-06-1081032766

OHARRA:

Matrikula egiteko egin esazu diru sarrera, bankuko agiria eramanez Bizarra Lepoan ekarteko egotzara (Salbida kalea, 5 1ºa) arratsaldeko 6etatik 8etara.
Telefonoa: 94 430 19 32



at z e r a b e g i r a



ALGORTAKO KASINOAN, 1908

BITOR EGURROLA

Argazki honek ia ehun urte ditu. Algortako Kasinoko behe aldean hartua izan zen 1908. urtean. Agertzen direnen artean denetarik dago: indianoak (Kuban eta Mexikon ibilitakoak), itsasgizonak eta arrantzaleak. Batzuk Ameriketatik ekarritako dirua bankuak edo eta nabierak abian jartzeko erabili zuten. Jantzera deigarria da, garaikoa: txapelak, itsasbiserak, “canotieurs” eta “errantxera” estilkoloko hegala zabaleko txanoak. Zer zela eta hartu zuten argazki hau? Kontua da argazkian azaltzen den Manuel Urretxuak, Mexikotik etorri berriak, handik ekarritako argazki kamera berria probatu nahi zuela.

ZUTUNIK

Francisco Libano Intxaurreaga, Justo Basagoli Arteta (bere anaia, Antonio, Banco Hispano Americano-ren sortzailea izan zen, Algortako kale batek bere izena dauka), Antonio Basagoli Ruiz (Antionioren semea), Roberto Intxaurtieta Arrigunaga.

JESARRITA

Manuel Ansoleaga Agirre (“Maritima Algortea”ren sortzaileetarikoa bat), Ramón Ansoleaga Egia, Manuel Urretxua Salsisua, Domingo Erauzkin, Jose Luis Ansoleaga Agirre, Alejo Sarria Ugarte, Martín Urretxua Salsidua (Pakiko Urretxuaren aita)



MUNGIA

oKINdegia

*Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15